

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KINTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lurzatiak lagatzea Kintako eta Durruma Kanpezuko herrietan ehiza esparrua eratzeko**

Kintako eta Durruma Kanpezuko herrien administrazio batzarrek, beraien kontzejuetan, "San Miguel" izeneko ehiza esparrua (matrikula: VI-10.148) berritzea erabaki dute. Haren titularra Kintako Administrazio Batzarra da, jabeen taldearen ordezkartzan.

Ehiza esparru horren sorreran esparrurako zehaztutako inguruan dauden lurzati guztiak, nola publikoak hala pribatuak, daudenez gero, honen bidez jakinarazten da egoera horri, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan aipatzen duen baimena eman dezaten. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hamabost egun baliioduneko epean kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dutenek isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrek baimena izango dute ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza esparruan sartzeko.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Kinta, 2019ko apirilaren 25a

*Lehendakaria*  
**RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO**